

Hawaii eta Estatu Batuen arteko erlazioaren historia laburtua

1826 – AEBek Hawaiiiko erresuma onartu zuen herrialde burujabe eta independente bezala.

1893 – AEBko itsas armadak Hawaii okupatu zuen Estatu Batuen segurtasunaren aitzakiarekin, Estatu Batuetako ministroak bandera jaso zuen Hawaii en eta Estatu Batuen protektoratu bezala aldarrikatu zuen. Ondoren AEBko gobernuak Hawaiiiko Liliuokalani erreginarene alde egitea "erraztu" zuten (irakurri erreginarene protesta hemen <http://www.kanakamaolipower.org/history.php>).

1898 – Estatu Batuek "ofizialki" Hawaii beretu zuten, Eranspen Tratatuaren araudiak kontutan hartu gabe, aurretik araudi hau Louisiana, Florida, Texas eta bestelako lurraldeak eransterakoan beti bete izan den arren. Nazioarteko legeen arabera, eranste tratatua ez egoteak esan nahi du erantsitako herrialdearen burujabetza **ez** dela eman.

1959 – Estatu Batuek erreferendum bat antolatu zuten Hawaiiiko biztanleei galdetzeko ea Estatu Batuetako estatu bihurtu nahi zuten edo protektoratu bat izaten jarraitu nahi zuten. Emaitza baikorra ziurtatzeko Nazio Batuen Gutunean ezartzen den hirugarren galdera kendu zuten, hau da, ea Hawaiiiko biztanleek independentzia nahi zuten. Hawaiiin aurkitzen ziren Ameriketako 10 000 militarren laguntzarekin bozen gehiengoa eskuratu zuten eta Hawaii AEBko berrogeita hamargarren estatu bezala gehitu zuten.

2015 – Hawaii gaur egun ere Amerikar Inperioko koloniarik ederrena da, eta AEBek oraindik ere baztertu egiten ditu Hawaiiiko independentzia eskatzen dituztenak. Baina, noiz arte...?

Gainera estatubatuarrek egunero esaten dute: “Gu gara mundu guztiko herrialderik handiena!”

Eta gainera haurrei irakasten dieten Leialtasun-zinean: “...**guztientzako askatasuna eta justiziarekin!**”

Zer erlazio dago independentzia eskatzen duten beste lurraldeekin? Hainbat antzekotasun daude. Munduan zehar hainbat okupatutako herrialde daude askatasunaren alde borrokatzen. Beren historian ikus daiteke nola Indar okupatzaileek nazioarteko legeak ezikusi edo eraldatu dituzten herrialde hauen borondatea ukatzeko. Hawaiiiko biztanleek hezkuntza-erakusketa iraunkor bat ezarri nahi dute Kauai uhartean, matxinadaren uhartean, beren kondairak eta banderak erakusteko mundu guztiko bisitariei. Irakasgai hauek Internet bidez ere eskuragarri egongo dira, noski, eta hainbat hizkuntzetara itzuliko dira.